

Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra

2022 urteko txostena



AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. ESPPOREN OINARRI ESTRATEGIKOAK	4
3. ESPPOREN HEDAPENA.....	8
3.1. Laburpen Orokorra	8
3.2. Ildo Estrategikoen Hedapena	9
4. INPAKTU ADIERAZLEAK.....	37
4.1. Inpektua Herritarren Segurtasun Pertzepzioan eta Herritarren Balorazioan	37
4.2. Inpektua Benetako Segurtasunean	37
5. ONDORIOAK.....	39
6.- ERANSKINAK	41
ADIERAZLEEN EMAITZAK	42

1. SARRERA

Dokumentu honek 2020-2025 aldirako Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorraren (aurrerantzean, ESPPO) hedapenean 2022an izandako aurrerapen-maila, egindako jarduerak eta Inpaktu Aginte Taulako adierazleen emaitzak jasotzen ditu.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko 15/2012 Legeak segurtasun publikoaren antolaketa esparruaren ikuskerara integral bat definitzen du. Bertan administrazio publikoek baldintzak sustatzeko eta oztopoak kentzeko bideratutako xedapen, prozedura eta baliabideak antolatzen dira, pertsonak beren eskubide eta askatasunak osoki baliatu ahal izateko eta bizikidetza baketsuan, ongizatean eta kohesio sozialean bizi ahal izateko, haien eskubideak eta askatasunak, haien segurtasuna eta haien ondasunen eta ondare kolektiboaren segurtasuna nahita edo nahi gabe kalteku litzaketen arriskuak ahal den neurrian murriztuz.

Segurtasun publikoaren sistemaren printzipio komunen artean daude, 15/2012 Legearen 3. artikulua arabera, arriskuak eta mehatxuak prebenitzea, herritarren beharrianak ezagutzea eta zerbitzu publikoa beharrian horietara egokitzea, bai eta arazoak identifikatzea, erantzuna planifikatzea eta emaitzak ebaluatzea ere. Legeak segurtasunaren helburuak, estrategiak eta jardute ildoak planifikatu beharra azpimarratzen du, eta, horretarako lehenengo tituluko II. kapitulua eskainiz.

2020-2025 ESPPO **segurtasun integraleko** ikuspegi batetik eraikitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko segurtasunean inplikaturik dauden erakunde guztien ekimenak biltzen ditu eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak koordinatutako lana islatzen du. Segurtasun Sailak zeharkako segurtasun-politikak artikulatzen ditu, lerrokatuak, koordinatuak eta lehenetsiak, eta Euskadiko **segurtasun publiko integralaren paradigma** berri bat planteatzen du, **eraldaketa digitalak** bultzatutako aldaketa bat.

Gainera, ESPPOren definizioan eta garapenean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) eta Euskadi 2030 Agendan jasotakoak hartu dira kontuan. Era berean, plan honek eta haren hedapenak emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna integratzen duten politikak garatzen laguntzen du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

2. ESPPOREN OINARRI ESTRATEGIKOAK

Atal honek Euskadiko segurtasunaren oinarri estrategikoak ezartzen ditu, hau da, Planaren xedea eta ikuspegia, baita horien formulazioa eta inplementazioa arautzen dituzten printzipioak ere, azkenik, Euskadik segurtasun arloan aurre egin beharreko erronka estrategikoak identifikatzeko.

XEDEA

Bizikidetzaren sozialean eta herritarren ongizatean laguntzea, segurtasun eredu publiko integral eta jasangarri baten bidez, prebentzioa, asistentzia eta erakundearen eta herritarren erantzunkidetasuna oinarritzat hartuta.

IKUSPEGIA

Euskadi erreferente moduan Europa mailan kokatzea, segurtasun errealeko zein hautemandako maila bikainekin.

PRINTZIPIOAK


GERTUTASUNA	Jarrera irekia eta hurbila daukagu pertsona guztiekiko.
KONFIANTZA	Zuzen jokatzeko dugu eta zintzo komunikatzeko gara.
KONPROMISOA	Erantzun eraginkorrak eta solidarioak emateko inplikatzeko gara, arazoak eraginkortasunez konpontzeko.
LIDERGOA ETA TALDEA	Modu kohesionatu eta koordinatuan lan egiten dugu, lidergo aktibo baten gidaritzapean.
BILAKAERA	Etengabe berritzen eta hobetzen gara.
GARDENTASUNA ETA GOBERNU ONA	Ingurunearekin konprometitzen gara, gizartearen oinarritzko arauak eta printzipio etikoak errespetatuz, eta konfiantza sortuz, gardentasunetik eta erantzukizun sozialetik.
ZERBITZU BOKAZIOA	Herritarrei balioa sortzeko konpromisoa dugu, arlo publikoaren etikatik.

ERRONKA ESTRATEGIKOAK

SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA	Segurtasun Integralaren Ereduranzko trantsizioa burutzea, zeinetan segurtasuna herritarren segurtasuna baino kontzeptu zabalagoa baita, erakunde eta agentzia instituzional eta pribatu ugariren lankidetzaren eta erantzunkidetasuna behar dituen, baita herritarrena ere. Hori lortzeko funtsezko alderdiak dira erakunde eta agentzia ugari horien koordinazioa eta osagarritasuna, lidergoari eta konpetentzien banaketari, harremanak izateko moduari eta abarri dagokienez.
GAITASUN BERRIAK ETA MEHATXU BERRIAK	Eraldaketa digitala, barne-operatiba eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko aukera bikaina izateaz gain, mundu digitaletik aprobetxatzen edo sortzen diren mehatxuei aurre egiteko beharrezkoa da. Segurtasun-sistema mehatxu berriak identifikatzeko prestatu behar da, hala nola Europako lurralde-gatazken ondoriozkoak, krisi ekonomikoaren ondoriozkoak edota proposamen politikoaren polarizazioaren ondoriozkoak.
ESPEKTATIBAK ETA ESKAKIZUN GERO ETA HANDIAGOAK SEGURTASUNARI DAGOKIONEZ	Segurtasun adierazleak objektiboki hobetzen diren arren, herritarrek azkar barneratzen dute normaltasun berria, eta euren espektatibak eta eskakizunak mantentzen dituzte. Alde batetik, gai jakin batzuen inguruko sentsibilitatea gero eta handiagoa delako (etxeko indarkeria/genero indarkeria, ingurumen delituak), edo kezka iturri berriak sortzen direlako (ziberdelituak).
ALDEBIKO KANPO KOMUNIKAZIOA	Kanal-digital berriek herritarrekiko zuzeneko komunikazioa edukitzea ahalbidetzen dute. Horrela, gizartea sentsibilizatu, informatu eta ahalduntzeko, baita haren pertzepzioa zuzenean ezagutzeko eta ingurunea hobeto ulertzeko informazioa biltzeko ere.
TALDE PROFESIONAL NAHIKOA, EGONKORRA ETA GOGOBEA	Profesionalen konpromisoaren eta gaitasunaren arabera, lantaldeak dimentsionatzea eta egonkortzea beharrezkoa da, bereziki belaunaldi arteko erreleboa kontuan hartuta, eta horrek, aldi berean, profilak errealitate berrietara egokitzeko aukera ematen du, erakargarriak izan daitezkeen prestakuntza eta gaitasun maila handiko profesional gazteak barne hartzeko.
EFIZIENTZIA OPERATIBOA	Aurrekontuen mugak erakunde publikoen errealitatearen parte dira, eta, zerbitzuaren bolumena eta kalitatea mantentzeko, eta handitzeko ere, baliabideen erabilera optimizatzeko eta prozesuak hobetzeko erronkari etengabe egin behar diote aurre.

Hedapenari ekiteko, HERRITARREN ESPEKTATIBAK ETA ESKAKIZUN GERO ETA HANDIAGOA eta ALDEBIKO KANPO KOMUNIKAZIOA lantzen dituzten erronkak erronka bakar batean biltzen dira, lehenengoaren izenarekin, oso lotura sendoa dutelako eta ekintzen arteko sinergiak dituztelako. EFIZIENTZIA OPERATIBOAREN erronkak ere ez du ildo estrategikoen hedapen espezifiko bat, baina beste erronka batzuetatik eratortzen diren ildo, ekimen eta ekintzen bidez landuko da, bi erronkei aldi berean eta koherentziaz erantzunez.

Horrenbestez, hedapena lau erronka hauen inguruan egituratzen da.



ILDO ESTRATEGIKOAK

Erronka bakoitzerako honako ildo estrategiko hauek ezarri dira:

ERRONKAK	ILDO ESTRATEGIKOAK
I SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA	L1 Euskadiko Segurtasun Integralaren Ereduearen esparru estrategiko eta kompetentziala ezartzea L2 Segurtasun integralean aktiboki inplikaturik dauden erakunde eta agentzia guztien arteko koordinazio eta lankidetz a mekanismoak finkatzea L3 Euskal sistemaren posizioa indartzea babes zibileko eta polizia lankidetzako nazioarteko esparru eta agentzietan L4 Prebentzio programa espezifikoak ezartzea, segurtasun arriskuen aurrean zaurgarriagoak diren kolektiboekin jarduteko
II GAITASUN BERRIAK ETA MEHATXU BERRIAK	L5 Euskadin azpiegitura nabarmen propioak babesteko sistema bat sortzea, lankidetz publiko-pribatuaren bitartez L6 Tresna berriak ezartzea pertsonen babesa efikaziaz eta efizientziaz handitzeko L7 Gaur egungo ikerketa sistema delituen errealitate berrietara egokitzea, ahalik eta jarduerarik azkarrena eta biktimentzat hain astuna izango ez den jarduketa bat lortzeko L8 Inteligentziak gidatutako segurtasun eredu bat garatzea
III HERRITARREN ESPEKTATIBAK ETA ESKAKIZUN GERO ETA HANDIAGOAK	L9 Herritarrekin eta gizarte zibilarekin harreman eta topaketarako dinamika sistematiko eta egituratu bat artikulatzea, baita gardentasunerako eta kontuak emateko L10 Mekanismoa eta kanalak ezartzea herritarrekiko aldebiko komunikazio zuzena eta efizientea ahalbidetzeko
IV TALDE PROFESIONAL NAHIKOA, EGONKORRA ETA GOGOBETEA	L11 Pertsona konprometituak, kualifikatuak, partaidetza zentzua dutenak eta gogobeteak edukitzea L12 Beharrezko lantaldea eta egitura finkatzea

3. ESPPOREN HEDAPENA

Dokumentuaren kapitulu honetan 2022an egindako jarduera nagusiak jasotzen dira, baita hasierako aurreikuspenarekiko aurrerapen-maila ere. Alde batetik, aurrerapen-mailaren laburpen orokorra aurkezten da, oro har, eta bestetik, ildo estrategiko bakoitzean garatutako jarduera nagusiak.

3.1. LABURPEN OROKORRA

ESPPOren jarraipen-adierazleetan oinarrituta, Plana 2022rako aurreikusitakoaren **%91,47**ean garatu dela esan daiteke, eta **%37,95**ean haren indarraldi osorako aurreikusitakoarekin alderatuta (2025 urtean amaitzen da indarraldi hori). Era berean, Plana **%37,55**ean garatu da, 2020 – 2025 aldi estrategikorako Garapen Jasangarrirako Helburuekin alderatuta.

Ildo estrategiko bakoitzaren aurrerapen-maila taula honetan jaso da:

ILDO ESTRATEGIKOAK		AURRERAPEN-MAILA	
		2022 ¹	2025 ²
L1	Euskadiko Segurtasun Integralaren Ereduaren esparru estrategiko eta konpetentziala ezartzea	%100	%40
L2	Segurtasun integralean aktiboki inplikaturik dauden erakunde eta agentzia guztien arteko koordinazio eta lankidetzak mekanismoak finkatzea	%83	%38
L3	Euskal sistemaren posizioa indartzea babes zibileko eta polizia lankidetzako nazioarteko esparru eta agentzietan	%80	%43
L4	Prebentzio programa espezifikoak ezartzea, segurtasun arriskuen aurrean zaugarriagoak diren kolektiboekin jarduteko	%94	%39
L5	Euskadin azpiegitura nabarmen propioak babesteko sistema bat sortzea, lankidetzak publiko-pribatuaren bitartez	%100	%32
L6	Tresna berriak ezartzea pertsonen babesa efikaziaz eta efizientziaz handitzeko	%90	%33
L7	Gaur egungo ikerketak sistema delituen errealitate berrietara egokitzea, ahalik eta jarduerarik azkarrena eta biktimentzat hain astuna izango ez den jarduketak bat lortzeko	%95	%41
L8	Inteligentziak gidatutako segurtasun eredu bat garatzea	%95	%39
L9	Herritarrekin eta gizarte zibilarekin harreman eta topaketarako dinamika sistematiko eta egituratu bat artikulatzea, baita gardentasunerako eta kontuak emateko	%94	%37
L10	Mekanismoa eta kanalak ezartzea herritarrekiko alde biko komunikazio zuzena eta efizientea ahalbidetzeko	%93	%38
L11	Pertsona konprometituak, kualifikatuak, partaidetzak zentzua dutenak eta gogobeteak edukitzea	%91	%38
L12	Beharrezko lantaldea eta egitura finkatzea	%98	%32

¹ ESPPOren ildo estrategikoen aurrerapen-maila 2022rako aurreikusitakoarekiko

² ESPPOren ildo estrategikoen aurrerapen-maila, 2025ean amaitzen den planaren indarraldi osoan aurreikusitakoarekiko

3.2. ILDO ESTRATEGIKOEN HEDAPENA

L1 EUSKADIKO SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUAREN **ESPARRU ESTRATEGIKO ETA KONPETENTZIALA** EZARTZEA

Helburua, Euskadin segurtasun integrala antolatzeko eta kudeatzeko eredu bat finkatzeko, eta Segurtasun Plan Orokorra inplementatzeko, oinarriak ezartzea da.

Estrategia argi bat edukitzea, eskumenen esparrua finkatzea eta herrialdeko beste estrategia sektorial batzuekin osatzea funtsezko faktoreak dira.

Atal honetan azpimarratzekoa da Planaren Gobernantza Sistemak behar bezala funtzionatzen duela, jarraipen-txostenak eginez eta hura osatzen duten kudeaketa-elementu guztiak gainbegiratur. Izan ere, Planaren jarraipenerako datuen elikatzea etengabea eta zeharkakoa da Planean definitutako ekintzen garapenean parte hartzen duten zuzendaritza guztientzat. Eskumenei dagokienez, planifikatutakoa gauzatu da, eta Segurtasun Saila, Barne Ministerioaren erabaki batzuen zain dago.

Hauek izan dira jarduera nagusiak:

- Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko 15/2012 Legea betez, 2021. urteari dagokion Segurtasun Publikoaren Plan Orokorren garapenaren jarraipen- eta ebaluazio-txostena egin da.
- Autogobernua sendotzeko eta babesteko esparruan segurtasunaren arloan planifikatutakoa egin da. Zehazki, Segurtasun Batzordea bultzatzen jarraitu da, Informazio, Polizia Judizial eta Koordinazio Operatiboko azpibatzerdeen bost bileren eta Polizia Koordinazioko Batzorde Teknikoaren bilera baten bidez. Horrek guztiak Segurtasun Sailburuordetzaren eta Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren arteko komunikazio operatiboko sistema ezartzen aurrera egitea dakar.
- Babes Zibileko Informazio eta Alerta Sarearen barruan Euskalmeten finkapena landu da. Zentzu horretan, komunikabide digitalen sistemaren (Twitter, Web Orria, Nahieran Abisuen Sistema...) erabilera eta kontsulta mailari buruzko adierazleek Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemak ezarritako abisu, alerta eta alarma meteorologikoen sistemak euskal herritarren artean ezagutza eta onarpen handia duela adierazten dute.
- Euskadi Basque Country 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuen garapenarekin bat eginik, eta Udalsarea 2030 udal-plan estrategikoetan parte hartzen duten udalerrien bidez, 2022an, Segurtasun Sailarekin polizia koordinazio-akordioak dituzten udalerrak 77 dira.

L2 SEGURTASUN INTEGRALEAN AKTIBOKI INPLIKATUTA DAUDEN ERAKUNDE ETA AGENTZIA GUZTIEN ARTEKO **KOORDINAZIO ETA LANKIDETZA** MEKANISMOAK FINKATZEA

Helburua gaur egungo koordinazio eta lankidetzaren mekanismoak sendotzea da, eta, beharrezkotzat joz gero, berriak sortzea, Euskadiko segurtasun integralaren kudeaketan esku hartzen duten erakunde guztien artean.

Estrategia argia izatea, eskumenen esparrua finkatzea eta herrialdeko beste estrategia sektorial batzuekiko osagarritasuna funtsezko faktoreak dira.

Jarduteko eremu horretan, Segurtasun Sailak Euskadiko Segurtasun Publikoan parte hartzen duten eragileekin elkarlanean jarraitu du. Ildo horretan, Bide Segurtasunaren eta Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Euskal Itunaren sinadura nabarmentzekoa da; izan ere, 14 erakundek, elkartek eta erakundek 17 konpromiso hartu dituzte, trafiko-istripuek eragindako heriotza eta lesio larririk gabeko gizarte batera iristeko.

Hauek izan dira jarduera nagusiak:

- Euskal Poliziaren Koordinazio Sistema sendotzeko helburuarekin, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen artean 31 koordinazio-hitzarmen sinatu dira. Besteak beste, hitzarmenek Udaltzaingoei Segurtasun Sailaren TETRA komunikazio-sarera sarbidea ematea eta drogen kontsumoa detektatzeko probak egitea (Ertzaintzak listu-laginak analizatuz, Udaltzaingoen eskatuta) barne hartzen dute. Zehazki, hitzarmen hauek sinatu dira:
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren (Segurtasun Sailaren bitartez) eta erkidego horretako udalen artean 28 lankidetzaren hitzarmen sinatu dira, Ertzaintza eta Udaltzaingoa elkarlanean aritzeko. Hain zuzen, hitzarmenak udalerririk hauekin sinatu dira: Laudio, Amorebieta-Etxano, Bakio, Berango, Bermeo, Elorrio, Erandio, Etxebarri, Gernika-Lumo, Lekeitio, Markina-Xemein, Ortuella, Plentzia, Sopela, Andoain, Arrasate, Azpeitia, Bergara, Deba, Eskoriatza, Lasarte-Oria, Lezo, Ordizia, Orio, Pasaia, Urnieta, Urretxu eta Zumarraga.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Segurtasun Sailaren bitartez eta Bermeoko Udalak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute, erkidego honetako Udaltzaingoen lortu dituen listu-laginak aztertzen jarduteko jarraibide bateratuak ezartzeko, ibilgailuak gidatzean drogen presentzia dagoela baieztatuz.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Orioko eta Lezoko udalek polizia-koordinazio eta -lankidetzaren arloan 2 lankidetzaren hitzarmen sinatu dituzte.
- Ertzaintzak Udaltzaingoen duen lankidetzaren ildoan, udalerririk bakoitzeko errealitate eta baliabideetara egokitutako 12 jarduketaren protokolo komun sinatu dira. Zehazki, protokoloek gertaera zerrendarekin eta titulartasunak esleitzarekin dute zerikusia. Protokolo horiek udalerririk hauekin sinatu dira: Sestao, Zarautz, Arrasate, Azkoitia, Zumaia, Legazpi, Elorrio, Villabona, Urnieta, Usurbil, Urretxu eta Zumarraga.
- Eskualdeko Segurtasun Plana egin da Muskizko Ertzain-Etxea barrutirako, bertako arriskuak kontuan hartuz eta eragindako lurraldearen ezaugarrietara egokituz. ESPPOren jarraibideei jarraituz, zonaren berriazko arriskuak zehaztu dira eta horiei aurre egiteko beharrezko bitartekoak eta koordinazio-mekanismoak ezarri dira.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) delitu, asistentzia eta kasuistika arruntei erantzun homogenea eman diezaien jarraibide, protokolo, irizpide eta informazioen sistema eta mekanismo komun eta partekatuek ezartzeko hainbat prozedura adostu dira. Hauek dira prozedura berriak:
 - Kamera pertsonalak erabiltzeko prozedura eta komunikazioa.
 - Udaltzaingoentzako baliabide teknikoaren eta defentsarako baliabideen prozedura-eredua.
 - Bide segurtasunaren arloan Zigor Kodea aplikatzeko prozeduraren eredua.
- Donostiako Udalarekin adostutakoaren arabera garapen informatikoa gauzatu da, Europar Batasuneko (EB) beste estatu kide batzuetan matrikulatutako ibilgailuen gehiegizko abiaduragatik arau-hausteei buruzko lankidetzaren esparruan.
- Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen baterako deialdiak finkatze prozesuan aurrera egin da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritzaren 2021eko abenduaren 27ko ebazpenaren arabera deialdi berri batekin. Ebazpen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) Oinarritzako Eskalako agenteen kategorian txanda irekiaz sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egin da. 2022. urtean deialdi honetako sarbide-probak eta prestakuntza garatu dira.
- Segurtasun publikoko eta pribatuko erakundearen artean koordinazio eta lankidetzaren egituratu eta egonkorreko mekanismoak ezartzeko, 2022an 496 koordinazio-bilerak egin dira. Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemako hainbat eragilek, suhiltzaileek, Osakidetzak, udalek eta aireportuek parte hartu dute bileretan.
- Ertzaintza SHIELD segurtasun-gorputzen nazioarteko sarearen parte da. SHIELDen segurtasun-kidegoek parte hartzen dute eta Ertzaintzari sektore pribatu eta publikoan terrorismoaren aurkako ekimenak egiteko aukera ematen dion programa globala da. SHIELDen afiliatutako erakundearen kopurua 2021ean 84 izatetik 2022an 130 izatera igo da eta horiekin Ertzaintzak dituen harremanak sendotuta daude.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren (Babes Zibila) arteko koordinazio eta lankidetzaren mekanismoak sendotzeko, hainbat jarduerak egin dira egungo koordinazio-zentroak "larrialdien adimen-zentro" bihurtzeko.
- Larrialdien kudeaketa hobetzeko, segurtasun integratuean aktiboki parte hartzen duten erakundearen eta agentzien eskura 11 garapen teknologiko berri jarri dira, larrialdi-egoeretan informazioaren arteko komunikazioa bizkortzeko.
- Aktiboki egin da lan Segurtasun Sailaren sistemak AVANTIUS sistemarekin integratzeko, Justizia Administrazioarekiko komunikazio elektronikoa lortzeko. Poliziaren eta epaitegien informazio-sistemen arteko informazio-interkonektioa datza. Zehazki, Ertzaintza AVANTIUS sistemara sarbidea martxan jarri da. Sistema hori 3 lurreko historikoetan arrakastaz ezarri da eta ertzain-etxe eta Ertzaintzaren unitate guztietan hedatu da. Integrazioa 2023an amaitzea espero da.
- Euskadiko Zibersegurtasun Agentziaren sorreran aurrera egin da eta haren prozesu administratibo eta legalean aurrera egin da. 2022. urtean, Agentziaren informazioa aurkeztu da nahitaezko txostenak eskatzeko ondorengo erakundeei: Ondare Zuzendaritza, Funtzio Publikoa Zuzendaritza, Kontrol

Ekonomikoko Bulegoa eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa. Gobernu Kontseiluak 2023ko lehen sei hilekoan lege-aurreproiektua onartu du.

- 2022ko azaroaren 4an Euskadiko Bide Segurtasunaren eta mugikortasun jasangarriaren aldeko lehen itun sozial eta instituzionala sinatu da, bide-segurtasunarekin lotutako hainbat erakunde publiko eta elkarteren parte-hartzearekin. Trafikoko istripuak eragindako heriotza eta lesio larririk gabeko gizarte baten alde 17 konpromiso hartu dituzten 14 entitate, elkarte eta erakunde lotu ditu itunak. Ekimen aitzindaria da eta Euskadi Europako erreferente gisa kokatzen du bide-segurtasunari eta trafikoaren kudeaketari dagokienez.
- Euskadiko Joko Sistema sendotzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren arloan esku hartzen duten erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta lankidetzak hobetzeko jarduerak egin dira. Hauek izan dira jarduera nagusiak:
 - Jokoaren eraginpeko pertsonekin lan egiten duten elkarteekin elkar ezagutza eta lankidetzak hobetzeko asmoz, 25 bilera egin dira ludopatia errehabilitatzeko elkarteekin eta joko-erakunde operadoreekin.
 - Jokoaren Euskal Behatokiak bi ikerketa argitaratu ditu 2022an: "Emakumeari eta Jokoari Buruzko Panoramika" eta "Gizarte-Pertzepzioa eta Jokoaren Balorazioa Euskadin".
 - Autonomi elkargoko eta estatuko debekatuen erregistroen elkarreragingarritasunari buruzko arlo teknikoetan aurrera egin da, jokoarekin arazoak dituztela adierazitako pertsonen sarbide-kontrolak indartzeko. Probak amaitu ondoren, estatu mailako Debekatuen Erregistroen kudeaketa elkarreragingarria ezartzeko hitzarmena sinatuko da.
 - Ertzaintzako Joko eta Ikuskizunen Unitatearen eta Udaltzaingoen arteko lankidetzak-akordioak gauzatu dira, jokoaren eta ikuskizunen arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela egiaztatzeko. Ildo horretan, koordinazio-mekanismoak daude, eta lankidetzak erraza da.

L3 EUSKAL SISTEMAREN POSIZIOA INDARTZEA BABES ZIBILEKO ETA POLIZIA LANKIDETZAKO NAZIOARTEKO ESPARRU ETA AGENTZIETAN

Helburua euskal segurtasun sistemako erakundeek eskubide osoko kide gisa parte hartzea eta lankidetzarako eta beren funtzioaren euskarrirako nazioarteko foro eta mekanismoetan sartzea da.

Nazioarteko koordinazio foroetarako eta datu baseetarako sarbidea eta lurraldeen artean batera jarduteko gaitasuna faktore erabakigarriak dira.

2022ko urtealdian, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko arloan garrantzi berezia duten mekanismoak ezarri dira. Ildo horretan, baso-sute handien baterako kudeaketarako sinatutako erakundeen arteko lankidetzahitzarmenak nabarmentzen dira. Bestalde, Foru Aldundiekin batera suteak itzaltzeko aireko baliabide bat kontratatzeko aurrekontu-zuzkidura abian jarri da.

Hauek izan dira jarduera nagusiak:

- Segurtasun Sailak segurtasunarekin lotura duten hainbat ikerketa-proiektutan parte hartu du, Europako erakundeekin elkarlanean:
 - European Emergency Number Association (EENA) ekimenak 112 Zentroen belaunaldi berrirako: 2022an lan-bidea zabalik mantendu da, 112 foroaren bidez batez ere.
 - URBAN KLIMA 2050 proiektuan definitutako zereginak egiten jarraitu da.
 - Eragiketa-ozeanografiako sistemak hobetzeko Europako proiektuetan parte hartu da. Zehazki, AZTI fundazioarekin itsasertzeko arriskuak eta klima-aldaketarekin duten bilakaera ebaluatzeko egindako proiektuaren bidez.
 - Erakundeen arteko lankidetzaren esparruan, Ertzaintzak hiru aldiz jaso du 2022an egindako Barne Segurtasunaren arloko Lankidetzaren Operatiboko Batzorde Iraunkorraren bilerekin buruzko dokumentazioa.
 - Ertzaintzak baiezko erantzuna eman dio Europol - Hagako ustelkeriaren aurkako borrokaren inguruko foroetara joateko gonbidapenari.
 - Europol eta Interpolen datu-baseetan sartzeko izapide formalak hasi dira, eta bilerak egin dira datu polizialen trukea sendotzeko eta aurrera egiteko.
- Segurtasun Sailak erakundeen arteko 3 lankidetzahitzarmen sinatu ditu baso-sute handietan eta beste larrialdi-jarduera batzuetan lankidetzaren osoa bermatzeko:
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Euskal Mendizale Federazioaren arteko lankidetzahitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren bitartez.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren (Segurtasun Sailaren bitartez) eta Euskaleguraldia – Informazio Meteorologikoaren Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, informazio meteorologiko orokorrari, larrialdiei eta babes zibilar buruzkoa.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren (Segurtasun Sailaren bitartez) eta enpresa kimikoen arteko lankidetzahitzarmena, Larrialdi Kimikoetan Biztanleei Abisu Sistemaren Sarea mantentzeko.

-
- Euskadik gero eta muturreko fenomeno meteorologikoei aurre egin behar die klima-aldaketaren ondorioz. Hori dela eta, Foru-aldundiekin batera, baso-suteak itzaltzeko aire-baliabideak kontratatzeko zuzkidura bat aurreikusi da.

L4 PREBENTZIO PROGRAMA ESPEZIFIKOAK EZARTZEA, SEGURTASUN ARRISKUEN AURREAN ZAURGARRIAGOAK DIREN KOLEKTIBOekin JARDUTEKO

Helburua segurtasun integralari heltzea da, arrisku nagusien aurreko prebentzioan oinarrituta, bereziki kolektibo zaurgarriengan duen inpaktua azpimarratuz.

Gerta daitekeen inpaktua eta gertatzeko probabilitatea ebaluatzeko arriskuen analisia eta biztanleriaren eta lurraldearen segmentazioa faktore erabakigarriak dira.

Prebentzioa Segurtasun Sailaren jarduera-ardatz nagusietako bat da. Alde horretatik, nabarmentzekoa da talde zaugarrien eta emakumeen aurkako indarkeriaren arriskuen prebentzioa. Ildo horretan, Euskadiko gorroto-gertakarien txostena egin da. Txostenean, 2022an Ertzaintzak erregistratutako 438 gorroto gertakariak aztertzen dira. Horietatik, 435 (%99,3) gorroto delituak dira, eta 3 (%0,68) gorroto arau-hauste administratiboak dira. Azpimarratzekoa da erregistratutako gorroto delituen kopuruak gora egin duela txosten hau egiten hasi zen lehen urtearekin alderatuta (2016. urtea), kontzientzia eta tolerantzia sozial handiagoa, poliziaren eraginkortasun handiagoa eta lege bilakaera direla eta.

Era berean, larrialdien kudeaketarako erresilientzia sozialaren arloko jarduerak eta Basque Cybersecurity Centerrekin (BCSC) lankidetzan teknologia berrien erabileran prebentzioak duen garrantzia nabarmentzen dira.

Hauek izan dira jarduera nagusiak:

- Ertzaintzak Komunikaziotik abiatutako Prebentzio Planarekin lotutako programak sustatu ditu, Segurtasun eta Hezkuntza Sailekin eta talde zaugarrien eskaerari erantzuteko. Hauek izan dira jarduera nagusiak:
 - 95 formakuntza ekintza egin dira droga eta alkohol kontsumo arrisku handiena duten kolektiboei (bereziki gazteei) arreta, prestakuntza, informazio eta kontrolerako programarekin lotuta. Hori guztia, delitu gertaeren eta arrisku jokabideen aurrean duten murrizteko.
 - Prestakuntza-hezkuntza jarduketako plan baten garapenarekin lotura duten bi prestakuntza ekintza egin dira. Ekintza hauen helburua gazte indarkeria imitazio eredu gisa saihestea da, bai gazte-ban-dei dagokienez, bai arma zuriekin borroka edo istiluetan parte hartzeari dagokionez.
 - 218 prestakuntza ekintza egin dira, gazteek teknologia berriak erabiltzeari lotutako arriskuei aurrea hartzeko programa baten: iruzurrak, jazarpena edo bullying-a, besteak beste.
 - Segurtasun Sailak Euskadiko gorroto-gertakarien 2022. urteko txostena egin du. Txostenean Ertzaintzak 2022an identifikatutako 438 gorroto gertaerak aztertzen dira. Horietako gehienak, 435 (%99,3), gorroto delituak dira, eta 3 (%0,68) gorroto arau-hauste administratiboak dira. Hala ere, Ertzaintzak 44 pertsona atxilotu ditu (2021ean baino bi aldiz gehiago) eta 246 egotzi ditu gorroto-delituak egitegatik. Txostenean jasotako gai hauek nabarmentzen dira:
 - Kolektibo etniko eta ideologikoen aurkako gertaerak dira nagusi.
 - Sexu-kolektiboen kontrako gertaerak sendotzen dira: homofobia, transfobia, genero eta sexu-identitatearen arrazoiak.

- Gorroto-diskurtsoekin lotutako gertaerek presentzia estatistikoa galtzen dute, eta Euskadiko gorroto-mapa espektriko konparatuaren joera globalekin bat dator. Horrek adieraz dezake erregistro-sistema doitzen, orekatzen eta fintzen ari dela.
- Indarkeria islamista erradikalaren aurkako prebentzio-programak bultzatzeko, Islamismo Erradikalaren aurkako Plan Estrategikoa, jarduera hauek egin dira:
 - 303 bisita edo kontaktu egin dira meskitetako ordezkariekin. Topaketen kopurua aurreko urtekoen antzekoa da. Bestetik, Ertzaintzaren eta EAEko meskitetako ordezkari gehienen arteko harremana sendotu egin da.
 - ADOS Aholku Batzordearekin koordinatuta, Ertzaintzak lankidetzan jardun du hilerrri islamiarrak irekitzeko eta ikastetxeetan erlijioa irakasgaiarekin arazoak konpontzeko. Era berean, Euskadiko imanentzako prestakuntza eta sentsibilizaziorako lehen ikastaroa ezarri da.
 - Komunitate islamiarreko lankidetzak areagotu egin da, kolektibo horren bidezko aldarrikapenei erantzuteko.
- Segurtasun Sailak emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko lanekin jarraitu du, baita helburu sexualak dituen emakumearen esplotazioaren aurka ere. Hori dena, Emakunderekin batera eta eragindako kolektiboekin koordinatuta. Hauek dira jarduera-eremu nagusiak:
 - Genero indarkeriaren kasuetan jarraipen integralerako sistemaren interkonexioa. Genero indarkeria kasuak edo etxeko indarkeria kasuak tratatzeko kudeaketa proiektua, EBA – Emakumeen eta Etxekoen Babesa, hasita dago eta ezartzeko prozesuan dago. Bestalde, Genero Indarkeria prebenitzeko baliabide teknologiko berrien kopurua 331ra igo da. Komunikabide horien artean, Bortxa aplikazioa nabarmentzen da, biktimaren dispositiboan Ertzaintzarekin konexio zuzena ahalbidetzen duena.
- Teknologia informatiko berrien erabilera prebenitzeko programen garapenean aurrera egin da, horiei lotutako arriskuak saihestuz:
 - Erakundeetan eta enpresetan delitu informatikoak eta zibererasoak prebenitzeko programa eginda eta martxan dago. 2022an 10 prebentzio ekintza egin dira. Ziberdelituen aurkako Ekintza Planaren esparruan, nabarmentzekoak dira Smishing, Bizum SMS eta BEC (Business Email Compromise) “Man in the middle” iruzurren inguruan egindako ikerketak eta, bestetik, 5.000 eurotik gorako iruzurrak.
 - Herritarrei iruzurrak saihesteko programa eginda eta martxan dago. 2022an, 28 hedapen-ekintza egin dira. Ekintza horien artean, kanpoko 8 prestakuntza jarduera, 18 elkarrizketa eta 2 prentsa ohar sartzen dira.
- Larrialdien arloan, arriskuak kudeatzeko sistematika berri bat garatu eta ezarri da egoera hauetarako:
 - Transmisio gaitasun handiko gaixotasunetarako Larrialdietarako Plan Berezia. 2022ko azaroan, Gobernu Kontseiluak pandemia batek eragin dezaken osasun publikoko larrialdi baten aurrean Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea (LABI) eratzeko prozedura onartu du.
 - Arrisku naturalei aurre egiteko gaitasuna indartzeko, bereziki baso-suteak itzaltzearekin lotuta, Segurtasun sailburuordearen 2 ebazpen eguneratu dira 2022ko ekitaldian:

- Segurtasun sailburuordearen 2022ko uztailaren 15eko Ebazpena. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Baso Suteen Arriskuagatiko Larrialdi Plan Bereziaren Larrialdi Fasea aktibatzen da. Ondorioz, landa inguruneko erabilera eta jarduera jakin batzuetarako murrizketak eta debekuak ezartzen dira.
- Segurtasun sailburuordearen 2022ko urriaren 26ko Ebazpena. Horren bidez, murrizketak eta debekuak ezartzen dira landa inguruneko erabilera eta jarduera jakin batzuetarako, basoetako suteen arriskua dela eta.

Ebazpen hauen bidez, murrizketa eta debekuak ezarri dira arrisku larria ekar dezaketen erabilera eta jarduketa batzuetarako, batez ere landa lurzoruan, edo lurzoru urbanizaezinean. Murrizketen aplikazioa bi alerta mailaren arabera zehazten da:

- Alerta Laranja: debekatuta dago sua erabiltzea dakarren edozein jarduera ordu jakin batzuetan. Hala nola, nekazaritzako eta basogintzako makineria erabiltzea, su artifizialak edo baso pistetan errekontzako motordun ibilgailuak erabiltzea, besteak beste.
- Alerta Gorria: Alerta Laranja murrizketa guztiak debekatzen dira eguneko 24 orduetan.

Alerta maila arrisku mailetara egokitzeko, Euskalmetek emandako datu meteorologikoak hartzen dira kontuan.

- Gaur egungo krisi humanitarioei dagokionez, hala nola Ukrainako gerrari dagokionez, prozedura bat garatu da, 112 SOS Deiak-era egin daitezkeen deien aurrean jarraitu beharreko ekintzak zehazteko, eskaintza indibidualekin eta elkartasun ekintza partikularrekin lotuta.
- Ekitaldi honetan, 1.402 establezimendu publiko eta pribaturen autobabeserako planak erregistratu edo eguneratu dira, aglomerazioek eragindako arriskuak minimizatzeke eta biktima anitzeko ezbeharrak kudeatzeko.
- 8 plan definitu edota eguneratu dira industria jarduerarekin, ekipo eta substantzia arriskutsuen garraioarekin edota manipulazioarekin lotutako arriskuei aurre egiteko.
- Simulazioak egitea bultzatu da, arriskuei erantzuteko zehaztutako operatiboen eta erantzun protokoloen egokitasuna egiaztatzeke. 2022an, establezimendu publiko zein pribatuek 1.174 simulazio egin direla jakinarazi da.
- Trafikoari dagokionez, kolektibo zaurgarrietan zirkulazio istripuak prebenitzeko, kontzientziazio eta bide hezkuntzako programak eta planak definitzen aurrera egin da. Hauek izan dira jarduera nagusiak:
 - Unibertsitatez kanpoko hezkuntza sisteman mugikortasun segururako hezkuntza sustatzeko ekintzak garatu eta ezarri dira. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako 22.317 ikaslek hartu dute parte "Gerta dakizuke - Te puede pasar", "Don't be dummy! Zuk ez duzu ordezkorik - Para ti no hay repuestos", eta antzerki foruma "Norabide guztiak - Cambio de sentido" programetan. Aurreko urtean baino 10.616 ikasle gehiagok hartu dute parte.
 - Gizarte eta hezkuntza eragileen eguneroko bizitzan mugikortasun segurua sustatzeko ekintzak ezarri dira. 2022. urtean, 52 hezitzailek parte hartu dute Hezkuntza Sailaren "Prest_Gara" programako "Gelako bide-arriskuen prebentzioa" izeneko on line ikastaroetan.

- Istripuei aurrea hartzeko eta talde zaugarrietan portaera seguruak sustatzeko sentsibilizazio-programan 174 pertsonak hartu dute parte. 2022an, motozikletak modu seguruan gidatzeko 4 ikastaro eta txirringarrentzako bestelako sentsibilizazio ekintzak egin dira.
- Jokoaren arloan, espezifikoko programa hauek landu dira: informazioa, talde zaugarriak babestea, parte hartzen duten eragileak kontrolatzea eta prestatzea, jokoarekin lotutako arazoei aurrea hartzeko eta haiei arreta emateko programak. Hauek dira jarduketak nagusiak:
 - Kolektibo zaugarriak jokoaren publizitatekin babesteko ekimenak garatu dira, bai eta hezkuntza eta prebentzio programak eskolan ere. Ildo horretatik, Euskadin joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko diru-laguntzak emateko 2022. urteko deialdia egin da.
 - Gizarte erantzukizuneko praktikak sustatzeko 3 ekintza egin dira jokoaren sektoreko enpresetan. Besteak beste, ostalarien prestakuntza bultzatzen eta josteta eta ausazko makinetan kalitatezko zigiluak erabiltzen lagundu da.
 - "Garaiz erretiratzea garaipen bat da" kanpaina garatzen jarraitzen da, jokoaren erabilera desegokiarekin lotutako arriskuen berri emateko.
 - Osasun Sailarekin lankidetzan, Adikzioen Kontseiluan parte hartu da eta Euskadiko Adikzioen Plana 2022 - 2026 egiten esku hartu da.
 - Nerabeei eta gazteei zuzendutako "Arrisku jokoa garaiz detektatzeko eta prebenitzeko gida" argitaratu da. Gida horrek osasun eta soziosanitarioen arloko komunitateak gazteenen artean joko patologikoa detektatu eta prebenitzeko jarraibideak eskaintzen ditu.
 - Jardunaldi bat egin da "Emakumeari eta Jokoari Buruzko Panoramika" eta "Gizarte-Pertzepzioa eta Jokoaren Balorazioa Euskadin" azterlanak aurkezteko.
 - Joko lokalen sarbideko eta konfigurazioko kudeaketari eta kontrolari dagokienez, sarbide elektronikoko 9 sistema homologatu dira, auto debekatuen erregistroarekin zuzenean lotuta. Joko lokalek sistema homologatuak ezarritako epea betez instalatu dituzte eta behar bezala funtzionatzen ari dira. Inplementazio horrek auto debekatuen erregistroko inskripzioak gehitzea ahalbidetu du. Sistemak 255 lokaletan instalatu dira.
 - Jokoaren publizitateari mugak jartzeari dagokionez, 2022ko urtealdian ez da esparru horretako zehapen espedienterik ireki behar izan. Adingabeen sarbideari eta jokoari buruzko bestelako espedienteak eta joko sistemetako irregulartasunak tramitatu dira.
 - Joko eta Ikuskizunen araudia betez, Ertzaintzako Joko eta Ikuskizunen Unitateko Ikuskapen Plana urtero aurkeztu eta onartzen da. 2022ko ekitaldian, 3.310 ikuskapen egin dira, eta planifikatutako helburua bete da.

L5 EUSKADIN AZPIEGITURA NABARMEN PROPIOAK BABESTEKO SISTEMA BAT SORTZEA, LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUAREN BITARTEZ

Helburua, gaur egun instalazio kritikoetarako erabiltzen direnak erreferentziatzat hartuta, Euskadiko azpiegitura nabarmenetara babes mekanismoak zabaltzea da. Lankidetzaren publiko-privatua eta zibersegurtasuna faktore erabakigarriak dira.

Estatuko Azpiegitura Kritikoaren Planaren esparruan, Segurtasun Sailak zenbait koordinazio organo estataletan parte hartzen du, hala nola Azpiegitura Kritikoak Babesteko Batzorde Nazionalan eta Azpiegitura Kritikoak Babesteko Sailarteko Taldean.

Ildo estrategiko honetatik datozen ekimenak eta ekintzak garatzeko, Segurtasun Sailak Euskadiko Azpiegitura Nabarmenen Babesa Kudeatzeko Plan Zuzentzailea (EANB) eta lan-talde bat garatu ditu. Planaren helburua definitu diren planak garatzea da. Hauek dira definitutako planak:

- Plan Estrategiko Sektoriala (PES): EANBren barruan 12 Plan Estrategiko Sektorial garatu dira. Sektore bakoitzaren arabera Euskadiko azpiegitura nabarmenak babesteko planean sar daitezkeen zerbitzuak eta erakunde eragileak identifikatu dira.
- Segurtasun Plan Korporatiboa (SPK): Euskadiko Azpiegitura Nabarmenen Planean parte hartzen duen agente bakoitzeko, dagokion Segurtasun Plan Korporatiboa garatzen da. Plan horretan planaren parte izango diren azpiegiturak identifikatzen dira, babes berezia izan dezaten.
- Azpiegitura Kudeatzeko Plana (AKP): aurreko planean definitutako azpiegitura bakoitzeko, Azpiegitura Kudeatzeko Plana zehazten da. Plan horretan, azpiegituraren datuak, interdependentziak, arriskuen analisia eta ezarritako babes neurriak sartzen dira, besteak beste.
- Laguntza eta Prebentzio Plana (LPP): AKPa onartu ondoren, Ertzaintzak LPPa garatzen du, Azpiegituran gertakari disruptiboak sortzen direnean erabiltzen dena. Plan horretan, harremanetarako datuak eta Azpiegituraren eta Ertzaintzaren arteko koordinaziorako formulak zehazten dira.

Plan horien helburu nagusia zenbait neurri ezartzea da, nabarmen gisa kategorizatutako eragileek identifikatutako azpiegiturak babesteko, haien funtzionamendua funtsezkoa bait da Euskadirentzat.

Bestalde, Ertzaintzak esku hartzen du segurtasun alerta bati erantzuteko beharrezkoak diren Azpiegitura Ebaluatze Planak eta Laguntza eta Prebentzio Planak ezartzen.

Hauek izan dira jarduera nagusiak:

- Euskadiko Azpiegitura Nabarmenak Koordinatzeko Batzordeak 24 Segurtasun Plan Korporatibo eta 2 Plan Estrategiko Sektorial onartu ditu. Azpiegitura nabarmenak babesteko planak sektore hauetan daude sailkatuta:
 - Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak
 - Energia
 - Garraio eta Logistika Azpiegiturak eta Baliabideak
 - Ura

- Osasuna
 - Arriskuko industria sektoreak
 - Gobernua eta Administrazio Publikoa
 - Elikatze katea
 - Finantzak
 - Eragile ekonomiko garrantzitsuak
 - Hiri eta industria hondakinak
 - Ikerketa
- Nabarmentzat jotako azpiegituretarako 3 Azpiegitura Kudeatzeko Plan eta Laguntza eta Prebentzio Plan egin eta baliozkotu dira.
 - 2022. urtean, hauek dira Euskadiko Azpiegitura Nabarmenen Babesa Programari (EANB) buruzko daturik aipagarrienak:
 - 48 operadore EANBri atxikita.
 - 88 operadore identifikatu dira.
 - 35 azpiegitura babestu dira.
 - 91 azpiegitura identifikatu dira.
 - 21.000 milioi euroko fakturazio bolumena, operadore guztien artean.
 - Basque Cybersecurity Center-ekin (BCSC) batera, zibersegurtasuneko gertakariei aurrea hartzeko eta erantzuteko politikak zehaztu dira. 2022ko urtealdian, 17 prebentzio eta erantzun politika definitu dira.
 - Ukrainako gerra hasi zenetik, eta Euskadiko azpiegitura nabarmerren, enpresen eta erakundeen aurkako balizko zibererasoen aurrean babes-neurriak ezartzeko helburuarekin, 2022ko martxoan Zibersegurtasuneko Erakunde arteko Mahaia eratu da. Hainbat bilera egin dira Euskadin zibereraso horien aurrean erantzuteko gaitasuna indartzeko eta Europako zibersegurtasun agentzien jardunbide egokiak hartzeko. Zibersegurtasunaren Erakunde arteko Mahaia honako arlo hauetan jarduten du:
 - Zibersegurtasun intzidenteen azterketa
 - Zibersegurtasuneko buletinak argitaratzea
 - Zaintza digitala eta alerta goiztiarra
 - Kontzientziazio materialak egitea eta zabaltzea

Erakunde arteko Zibersegurtasun Mahaia 2022an egindako jarduera nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Erakundeen kontaktuari eta monitorizazioari buruzko informazioa biltzea, zibersegurtasun intzidenteak edo izan litezkeenak garaiz identifikatzeko eta horiek konpontzeko jakinarazteko.
- Ziberintzidenteak kudeatzeko txantiloia egin da, eta honako jardun urrats hauek definitu dira: prestakuntza, detekzioa eta analisia, erantzuna, berreskuratzea eta jarraipena.
- Gertaerei buruzko informazioa trukatzeko plataforma bat sortu da. Hainbat erakundek parte hartzen dute, eta Euskadin segurtasunean eragina izan dezaketen gertaerei buruzko informazio garrantzitsua sartu da.
- Hainbat simulazio egin dira, honako egoerak barne: administrazio publikoei zuzendutako malware kanpaina detektatzea, zero-day motako ahultasun kritikoa, eta euskal erakunde publikoetan izendapen ihesak egitea.
- Euskadiko zibersegurtasunaren egoerari buruzko 3 txosten egin dira. Txosten horien helburua BCSCk erakunde eta herritar interesdunen segurtasunaren alde beharrezkotzat jotzen dituen alertak zabaltzea da. 2022ko hiruhileko bakoitzean izandako gertakari eta mehatxu nagusien laburpena eta azterketa jasotzen dute txostenek.

L6 TRESNA BERRIAK EZARTZEA PERTSONEN BABESA EFIKAZIAZ ETA EFIZIENTZIAZ HANDITZEKO

Helburua IKTek segurtasun integralaren eremu guztietan eskaintzen dituzten potentzialtasunak ahalik eta gehien aprobetxatzea da.

Teknologia erabiltzea prebentzio aktiboa lekuan bertan sustatzeko, intzidentziei aurre egiteko jardutea, efizientzia operatiboa handitzea eta sistemen segurtasuna faktore erabakigarriak dira.

Segurtasun Sailak berrikuntza teknologikoak gehitzen jarraitu du, bere gaitasunak hobetzeko eta profesionali laguntzeko. Zehazki, beharizan berriak zehaztu dira alde operatibotik, gero Teknologia eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusira bideratzeko.

Hauek izan dira jarduera nagusiak:

- 2022. urtean, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak 119 prozesu definitu ditu, eta 16 proiektu gauzatu dira berrikuntza kudeatzeko eta segurtasuna hobetzeko eredia ezartzeko.
- Joko eta ikuskizunei dagokienez, ikuskapen lanak egiteko balio duen JOIKU aplikazioaren erabilera finkatu da. Gaur egun, ikuskapen guztiak JOIKUren bidez egiten dira, 3.310 guztira 2022an. Aplikazioa utilitate berriak sartzeko prest dago.
- Informazioaren segurtasun-politika bermatzeko ekintzak egin dira. Hona hemen jarduera nagusiak:
 - BCSCrekin lankidetzan ekintzak zehaztu eta hedatu dira. Bestetik, Segurtasun Sailaren informazio-sistemak etengabe monitorizatu eta aztertu dira.
 - Zibersegurtasuneko Mahai Interinsituzionalean identifikatutako Segurtasun Sailaren sistemak babesteko neurriak hartu dira.
- Larrialdiei eta meteorologiari dagokienez, Segurtasun Sailaren jarduera nagusiak hauek izan dira:
 - Funtzionalitate berri bat gehitu zaio 112 SOS Deiak aplikazioari, Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentrorira irudiak bidaltzeko aukera ematen duena.
 - 112 SOS Deiak App-ean integratutako 112 Alderantzizko Zerbitzuaren bidez herritarrei abisuak bidaltzen jarraitu da. Funtzionaltasun horri esker, arrisku egoeren abisuak bidali daitezke kaltetutako eremuetan. 2022an, 26 abisu eman dizkiete larrialdi zerbitzuek kaltetutako gunetako pertsona zehatzei. 2022an 72.430 pertsona harpidetu dira.
 - Europako ES-Alert sistema berriaren funtzionamendu lehen proba egin da. Sistema hori larrialdiren bat edo hondamendiren bat izan dezaketen biztanle sektoreei abisuak bidaltzen espezializatuta dago.
- Trafikoaren eta bide segurtasunaren arloan egindako jarduera nagusiak hauek izan dira:
 - Bide nagusietan matrikulak automatikoki irakurtzeko OCR (Optical Character Recognition) sarearen instalazioa amaitu da. Sare honek bide zirkulazioaren segurtasun handiagoa bermatzen du. 2022an, 42 matrikula irakurgailu instalatu dira EAEko errepide sare nagusiko hainbat puntutan.

- Trafikoaren egoera monitorizatzen duen eta GPS datuetatik abiatuta txosten historikoak egiten dituen aplikazioaren prestazioak hobetu egin dira.
- Road Safety izeneko tresnaren prestazioak hobetu egin dira. Tresna horrek istripuen kausen eta faktoreen azterketa errazten du (batez ere abiadurarena), kalitate handiagoko bide-segurtasunari buruzko azterlanak egiteko.
- Berrikuntza, tresna teknologiko berriak ezartzeko lan ardatzetako bat da. Berrikuntzaren eta segurtasunaren hobekuntzaren esparru estrategikoa ezarri ondoren, prozesuak, antolamendu egitura eta beharrezko baliabideak identifikatu eta definitu dira. Lan horren ondorioz, jarduera nagusiak hauek izan dira:
 - Larrialdiei eta meteorologiari dagokienez, SOS Deiak aplikazioaren bidez edozein larrialdimotari lotutako irudiak bidaltzeko aukera ematen duen funtzionaltasuna sartu da.
 - Bestalde, honako proiektu hauen implementazioan aurrera egin da: webcam publikoak erabiltzea larrialdi prozedurak optimizatzeko, eta deiak denbora errealean sailkatzeko sistema adimenduna.
 - Araubide Juridiko Publikoaren Arloan izapidetzen diren herritarren segurtasunari buruzko legea eta segurtasun pribatuari buruzko legea hausteagatiko zehapen prozedurak kudeatzeko aukera ematen duen aplikazio informatikoa, espediente digitala sortzea eta haren izapidetze elektronikoa (Tramitagune) ahalbidetzen duen aplikazioarekin erlazionatu da. Horren helburua, espedienteak digitalak izateko eta bitarteko elektronikoen bidez izapidetzeko legezko eskakizuna betetzea, eta prozeduren hazkunde nabarmenari ahalik eta eraginkortasun handienarekin aurre egitea da

L7 GAUR EGUNGO IKERKETA SISTEMA DELITUEN ERREALITATE BERRIETARA EGOKITZEA, AHALIK ETA JARDUERARIK AZKARRENA ETA BIKTIMENTZAT HAIN ASTUNA IZANGO EZ DEN JARDUKETA BAT LORTZEKO

Helburua Ertzaintzari eta Udaltzaingoari delitu berrien tipologiak (ziberdelituak) edo konplexutasun maila handia dutenak (ekonomikoak, ingurumenekoak...) ikertzeko beharrezko baliabideak ematea da. Ikerketaren dimentsio anitzeko ikuspegia (antolaketa, pertsonak, sistemak) eta ekintza espezifikoak behar duten delitu moten identifikazioa faktore erabakigarriak dira.

2022an, delitu gehiago gertatu dira modu presentzialean, teknologia berrien bidez baino. Zehazki, 133.989 delitu izan dira Euskadin. Horietatik, 113.842 (%85) aurrez aurre ekoitzi ziren, eta 20.147 (%15) ziberespazioan, teknologia berrien bidez. Hala ere, proportzioan, ziberdelituen gorakada askoz handiagoa izan da: %41, delitu presentzialen %6ko hazkundearen aldean.

Delinkuentzia mota honen hazkundearen jakitun, Eusko Jaurlaritza neurriak hartzen ari da horrelako delituak prebenitzeko, ikertzeko eta ebazteko. Horren harira, beste neurri batzuen artean, Ertzaintzaren Informazio Teknologien arloko Delituen Atal Nagusiaren ahalmenak indartu dira, Ertzaintzak Ziberkriminalitatearen aurkako Ekintza Plan bat egin du eta Ziberzaintza (Zibersegurtasun Euskal Agentzia) agentzia eratzeko prozesua abian jarri da.

Hauek izan dira jarduera nagusiak:

- Ertzaintzak Ziberkriminalitatearen aurkako Ekintza Plana garatu du, Europako eta Estatuko estrategiekin bat. Planaren helburua Ertzaintzak Interneten egindako delituen aurrean erantzuteko duen gaitasuna indartzea da: Delitu hauen artean esplotazioa eta sexu-abusua, iruzurrak, mehatxuak, azpiegitura kritikoen aurkako zibererasoak daude, besteak beste.
- Ikerketa eredu berria berrikustea eta eguneratzea. Eredu honek hiru ardatz ditu oinarri: Pertsonan Oinarritutako Arreta, Ebazpena eta Prebentzioa. Eredu berri honi erantzuna emateko:
 - Transformazio Ibilbide bat egin da, ikerketa eredu berria ezartzeko aldaketa proiektu batzuekin. Guztira, 11 ekintza planifikatu dira, 2022an jada ezarrita zeuden 8 eta 2023an amaituko diren beste 3.
 - IKERNET izeneko lurralde mailako ziberikertzaile taldeak eratu dira, guztira 40 agenteekin. Ziberdelinkuentziako Talde Egonkorrek zerbitzu hori finkatzeko plangintza egiten du gaur egun. 2022. urtean, IKERNET-era hiru taldeetako 18 agente berri gehitu dira. Hiru lurralde buruzetako kide dira eta Ikerketa Kriminaleko Dibisioaren mende daude.
 - Hiru lurralde burutzei Ikerketa Kriminaleko eta Polizia Judizialeko Buruzetako 7 ikerketa-espezialisten taldeak gehitu zaizkie. 7 talde horiek honako hauetan espezializatuko dira:
 - Pertsonak
 - Delitu ekonomikoak
 - Ingurumenaren eta hirigintzaren aurkako delituak
 - Trafiko istripuak berreraikitzea
 - Informazioaren teknologien delituak

-
- Antolatutako krimena
 - Polizia judiziala
- Espezializazio eskakizun horiei erantzuteko, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian sartzeko modua eta prestakuntza egokitu dira. 2022an, 109 agente sartu eta trebatu dira. Horietatik 91 Ikerketa Kriminalerako eta Polizia Judizialerako kideak dira, eta 18 delitu informatikoetan espezializatutako Lurralde Buruzetako (IKERNET) kideak.
 - Delitu mota berri bakoitzari dagozkion delituak ikertu dira. Azpimarratzekoa da Ertzaintzaren Ziberkriminalitate Delituen Ekintza Planaren barruan 2.881 delitu ikertu eta ebatzi izana. Guztira, delitu informatikoekin zerikusia duten 20.147 atestatu bideratu ditu Ertzaintzak.
 - 156/2022 Dekretua onartu da, abenduaren 20koa, Ertzaintzako fakultatiboen eta teknikarien eskala arautzen duena. Dekretuak honako arlo hauek garatzen ditu: fakultatiboen eta teknikarien eskalako eginkizunen konfigurazioa, sarbidea, hautaketa sistemak eta Ertzaintzako teknikarien eskalako funtzionario izendatzen diren pertsonen aplikatu beharreko araubidea.

L8 INTELIGENTZIAK GIDATUTAKO SEGURTASUN EREDU BAT GARATZEA

Helburua segurtasunarekin lotutako jarduera guztiak (prebentzioa, ikerketa eta intzidentziei erantzutea), iturri askotatik datorren eta modu integralean ustiatzen den informazio eztabaidagarrian eta egokian oinarrituta egotea da.

Funtzio guztietan intelijentzia txertatzea (prebentzioa, ikerketa, intzidentziei erantzutea) eta maila guztietan (zentrala, lurraldekoa, lokala) barneko eta kanpoko informazio iturri ugari integratzea, analisi gaitasuna izatea, baita denbora errealean ere, eta bilaketa eta txosten interfaze errazak eta interpretatzen errazak izatea faktore erabakigarriak dira.

Segurtasun Departamentuaren jarduera eraginkorragoa izan dadin, 2022an prozedurak berrikusten jarraitu da, etengabe hobetzeko. Gorabehereri buruzko ikerketa, erantzuna ematea eta analisi eta prebentzio gaitasuna izatea ezinbestekoak dira Segurtasun Publikorako.

Hauek izan dira jarduera nagusiak:

- 85 ekimen zehaztu eta abian jarri dira prebentzio aktiboaren esparruan. Zehazki, hainbat ekimen planifikatu eta gauzatu dira, hala nola patruila fokalizatua, salaketa formularioan oinarritutako kalitate automatikoko prozesua eta Ertzaintzan aurkeztutako salaketetan datuak atzemateko prozesu automatikoa.
- Trafikoaren arloan, tresna berrien eta funtzio analitikoaren erabilera sustatu da, informazioaren ustiapen integratuaren bidez trafikoaren egoera hobeto ezagutzeko. Zehazki, jarduera hauek egin dira:
 - Mugikortasunari buruzko 3 azterketa egin dira Euskadiko hiriburuetakoko sarbideetan, ibilbide luzeko zirkulazioan eta mugaz gaindiko trafikoan.
 - Garraio berezien ibilbide posibleak kalkulatzeko, baimendutako ibilbideen kontrola eta jarraipena egiteko eta sortutako informazio guztia ustiatzeko tresna bat garatu da. Tresnak, garraio horien kudeaketa politikan erabaki hobekoak hartzea ahalbidetzen du.
- Euskadiko Trafikoko Kudeaketa eta Informazio Zentroko langileen funtzioak birdefinitzeko eta informazio integratuaren ustiapen eta azterketa arloan dituzten eskumenak eta gaitasunak egokitzeko, 12 prestakuntza ekintza egin dira. Ekintza horietan Segurtasun Saileko 5 pertsonak osatutako talde batek parte hartu du. Hona hemen burututako zenbait prestakuntza ekintza:
 - Prestakuntza EUSKARRIn, Segurtasun Publikoaren kudeaketa intzidentalaren aplikazioa, eta EUSKAIIn, EUSKARRIren kontingentziaren aplikazioa.
 - Prestakuntza ekintzak Neguko Bidezaintza Planari dagokionez. 2022an, Neguko Bidezaintza Plana 4 aldiz aktibatu zen Jarraipen eta Informazio Fasean (1.000 metrotik beherako elur kota, prezipitazio handiekin). Horietatik behin bakarrik Fase Operatibora igaro zen, elur kota 700 metrotik behera jaitsi zelako.
 - Trafikoko operazio berezietan buruzko prestakuntza ekintzak. Alde horretatik, Aste Santuko eta udako irteera eragiketarako eta itzulera eragiketarako nabarmentzen dira.
 - Trafikoaren kudeaketari buruzko berariazko aplikazioei buruzko prestakuntza ekintzak.

L9 HERRITARREKIN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMAN ETA TOPAKETARAKO DINAMIKA SISTEMATIKO ETA EGITURATU BAT ARTIKULATZEA, BAITA GARDENTASUNERAKO ETA KONTUAK EMATEKO

Helburua herritarren eta gizarte zibilaren arteko lotura sortzea da, Euskadiko segurtasun sistemari dagokionez. Bestetik, herritarrek eta gizarte zibilak segurtasunaren arloan dituzten beharrak eta itxaropenak zehatz-mehatz eta lehen eskutik ezagutzea ere.

Gizarte zibilaren funtsezko solaskideak identifikatzea, haiekin harreman zuzena izatea eta segurtasun politikei, ekintzei eta emaitzei buruzko informazio gordina eta landua zabaltzea faktore erabakigarriak dira.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak bereziki garrantzitsutzat jotzen du gizartearekin harremanak izateko eta elkartzeko sistemak ezartzea. Gainera, lehentasunez jotzen du bere jarduerara gardentasun handieneko eta kontuak emateko irizpideekin garatzea. Horretarako, Arartekoarekin, Euskadiko Udalen Elkartarekin, EUDELekin, eta hainbat erakunde edo talderekin bilerak eta harremanak izan dira. Bestalde, Kontrol eta Gardentasun Batzordeak bere jarduerarekin jarraitu du eta 9 bilera egin ditu 2022ko urtealdian. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak, berriz, erantzun osoa eman die Eusko Legebiltzarretik jasotako proposamenei.

Hauek izan dira jardueraren nagusiak:

- Zuzenean komunikazio kanalak, segurtasunarekin lotutako herritarren proposamenak jasotzen jarraitu du. Hain zuzen ere, 2022an 35.358 arreta eman dira Segurtasunarekin erlazionatuta, hau da, Zuzenean zerbitzuaren bidez emandako arreta guztien %5,58, eta bosgarren gairik tratatuena.
- Segurtasun Publikoaren Sistema Hobetzeko Herritar Ekimenen Bulegoaren (Ekinbide) zeregina indartu eta areagotu da. 2022an 370 espediente jaso eta erregistratu dira, 2021eko 337ekin alderatuta.
- Segurtasun Sailak informazio eta kontu ematerako mekanismo bat du. Horren bidez, segurtasunaren bilakaerari buruzko datuak argitaratzen dira, eta, unean-unean, interes orokorrekoak izan daitezkeen jardueren azalpenak ematen dira. Hona hemen arloka argitaratutako txosten guztien zerrenda:
 - Sailaren jardueraren jarraipen orokorrari dagokionez, guztira 8 txosten egin eta argitaratu dira. Horien artean Legebiltzarrera bidalitako Urteko Estatistika Txostena, Hiruhileko Estatistika Txostenak, Gorroto Delituei buruzko Txostena eta Ekinbideren Memoria (Legebiltzarrera bidalia) daude. Era berean, EAEko 2022ko Delinkuentzia Memoria eta etengabe eguneratzen ari den kriminalitateari buruzko hiruhilekoko datuak jasotzen duen dokumentua argitaratu dira. Bi dokumentu horiek Ertzaintzaren webgunean daude eskuragarri.
 - Larrialdien eta meteorologiaren arloan, zuzendaritzaren jarduerara jasotzen duen memoriaz gain, hainbat txosten egin dira beste erakunde eta zerbitzu batzuekin izandako elkarreraginei buruz.
 - Joko eta ikuskizunei dagokienez, joko jarduerari buruzko hiruhileko dosierrak eta Ikuskizun eta jolas jarduerari buruzko hiruhileko dosierrak argitaratu dira. Guztira 8 txosten argitaratu dira, 2 2022ko hiruhileko bakoitzeko.
 - Trafikoaren arloan, 2022ko urtealdiari dagozkion 30 estatistika txosten argitaratu dira. Txostenak Trafikoko zuzendariak urte amaieran, prentsaurrekoan, aurkeztutako Urteko

Balantzean jasotzen dira. Halaber, datu horiek Euskadiko Bide Segurtasuneko Batzordean aurkezten eta banatzen den memorian bateratu egiten dira. Kasu honetan, 2023ko martxoan.

- 2022an Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordearen 9 bilera egin dira. Gainera, poliziaren jardueraren gaineko kontrolen neutraltasunean eta objektibotasunean herritarren zilegitasuna eta konfiantza indartzeko helburuarekin, 2 espediente izapidetu dira.
- Gizarte zibilarekin, herritarren elkarteekin eta kolektiboekin harreman sare bat sortzean sakondu da, komunikazio bide egonkorrak ezartzeko eta herritarren eskaerak jasotzeko. Horretarako, Segurtasun Sailak bilera hauek mantendu ditu:
 - Hainbat interes taldetako 2.456 pertsonekin harremanak mantendu dira. Ertzaintzaren Zuzendaritzaren helburuak lortzeko ekarpen positiboak egiten dituzten kolektiboekiko harremanak dira.
 - 20 bilera egin dira Larrialdiei Aurregiteko Euskal Sistemako boluntarioritza-erakundeekin. Hori guztia, sistema hau hobetzeko asmoz, herritarren entitateei arreta eta laguntza ematen jarraitzeko.
 - Jokoaren eta ikuskizunen arloan, 50 bilera egin dira, Jokoaren Aholku Batzorde Teknikoan dauden elkarte eta talde ugariarekin. Horien artean prebentzioa eta jokoarekiko mendekotasunaren terapia lantzen dituzten elkarteak daude, baita ostalaritzako elkarteak ere. Merkataritza Ganberak, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseiluaren bidez, ere ordezkaturik daude.
 - Trafikoari dagokionez, 40 bilera egin dira Bide Segurtasuneko Planaren xede diren kolektiboek osatzen duten sarearekin.
- Segurtasun Saila etengabe bildu da Arartekoaren Bulegoarekin, herritarren aldetik jasotako eskaerei lekua egiteko. Eskaera horiei eragiten dieten arlo nagusiak Trafikoa, Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura eta Herritarren eskubideak dira.
- Gizartearekin elkartzeko hainbat mekanismo ezarri dira, herritarrek segurtasunaren arloan dituzten kezkek ezagutzeko eta haien eskaerei erantzuteko. Zehazki, Segurtasun Sailak honako mekanismo hauek ditu trafikoa eta jokoaren arloan:
 - Trafikoaren arloan, herritarren 35 proposamen baino gehiago jaso dira, hainbat bidetatik.
 - Bestalde, sektore publikoko eta pribatuko eragileekin lankidetzan aritzeko eta parte hartzeko bideak mantendu dira. Proiektu garrantzitsuenen artean honako hauek nabarmentzen dira:
 - INNOVABIDE Sarearen jarduerarekin jarraitu da eta Sarea osatzen duten enpresen kopurua handitu da. INNOVABIDE proiektua, Segurtasun Sailak euskal enpresen mugikortasun segurua eta bide segurtasuna sustatzeko egindako ekimena da, Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Itunarekin eta ESPPOrekin bat datorrena.
 - Kultura Sailarekin eta Lehendakariarekin lankidetzan aritu da 2030 Eskola Agenda digitalaren proiektua sustatzeko.
 - Bide segurtasuneko lanbide heziketako goi mailako gradua sustatu da, OSALANekin eta Osasunarekin elkarlanean, besteak beste.

- Era berean, Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Itunaren bidez, harremanak eta sare kolaboratzaileak sortu dira Segurtasun Sailaren jardueretan. Udal askok jo dute Segurtasun Sailera, beren udalerrietan mugikortasun segurua hobetzeko bide segurtasunari buruzko azterlanak eskatzeko.
- 2022an joko eta ikuskizunen arloan 250 proposamen baino gehiago jaso dira. Kolektiboek nahiz norbanakoek egindako proposamenak, Zuzenean eta Gardentasun Atariaren bidez jasotzen dira.

L10 MEKANISMOA ETA KANALAK EZARTZEA HERRITARREKIKO ALDEBIKO KOMUNIKAZIO ZUZENA ETA EFIZIENTEA AHALBIDETZEKO

Helburua, alde batetik, euskal sistemako herritarrek eta erakundeek informazioa denbora errealean trukatzeko da, horiek guztiek ahalik eta modurik egokienean eta informatuenean jardun dezaten segurtasunaren aurkako edozein mehatxuri aurre egiteko. Bestalde, helburua segurtasun zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa erraztea eta larrialdi egoeretan botoa ematea ahalbidetzen duten formulak ezartzea da.

Denbora errealean entzuteko eta zabaltzeko gaitasuna, zerbitzu digitalen erabiltzaileen esperientzia eta zerbitzu horien eraginkortasuna hobetzea lortzea faktore erabakigarriak dira.

Segurtasun Sailak herritarrekin zuzenean, eraginkortasunez eta kontrastatuta komunikatzeko mekanismoak eta kanalak ezartzeko konpromisoa du. Helburua egiazko informazioa helaraztea da, segurtasunaren pertzepzioari eragin diezaiokeen edozein atalen hedapena saihestuz, eta larrialdiei buruzko alerta eta aholkuei buruzko informazioa denbora errealean herritarrei emanaz. Ildo horretan, sare sozialetako kanal ofizialen bidez komunikatzeko ahalegina nabarmendu behar da.

Bestalde, 112 SOS Deiak aplikazioan txertatutako 112 Alderantzizko aplikazioan oinarritutako abisuen prozedura ezartzean, harpidetza kopurua handitu egin dela ikusi da. Horren bidez, herritarrei ohartarazi zaie beren eragin eremuari berariazko arriskuei buruz. Horrez gain, zenbait prozeduraren digitalizazioan aurrera egin da. Esate baterako, polizia bulegoetara joan eta salaketa jartzeko ordua online eskatzeko sistema bat instalatu da, eta salaketa mota batzuen izapidetze telematikoa egin da. Helburua izapide administratiboak minimizatu eta optimizatzea da.

Hauk izan dira jarduera nagusiak:

- Herritarrekin komunikazio kanal zuzenagoa sortzeko helburuarekin, "esames kontrako eta fakenews kontrako" kanalak ezarri dira. Ildo horretan, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen kidegoek segurtasunaren esparruari buruzko informazio egiaztatua ematen eta segurtasunaren pertzepzioari eragin diezaioketen buloak eta albisteak ezabatzen jarraitu dute. 4.910 argitalpen egin dira dagoeneko egiaztatuta dauden 7 kanaletan. Kanaletan banatuta, argitalpen hauek egin dira:
 - Ertzaintza - Twitter: 2.217 argitalpen eta 42.205 jarraitzaile
 - Ertzaintza - YouTube: 153 argitalpen eta 1.078 jarraitzaile
 - Ertzaintza - Instagram: 761 argitalpen eta 1.400 jarraitzaile
 - Udaltzaingoa - Twitter: 212 argitalpen eta 1.832 jarraitzaile
 - Web Irekia: 472 argitalpen
 - Ertzaintzaren webgunea: 945 argitalpen
 - Udaltzaingoen webgunea: 150 argitalpen
- Gainera, Ertzaintzak 11.621 gai landu ditu bere aplikazioaren bidez, "Laguntzailea", "Kontaktua" eta "WhatsApp" formatuetan.
- Trafikoari dagokionez, euskal bide sarearen segurtasunari buruzko informazioa herritarrei zuzenean, berehala eta modu erabakitzailean emateko mekanismoak indartzen jarraitu da. Ildo horretan, 54.485

kontsultari erantzun zaie 011ren bidez. Horietatik 15.598 informaziokoak izan dira eta 37.887 koordinaziokoak. Era berean, aktibo mantendu dira herritarrekin komunikatzeko erabilitako 7 kanal hauek:

- www.trafikoa.eus webgunea
 - Twitter, YouTube eta Facebookeko kontuak
 - OpenData: Trafikoaren gorabeheren eta trafikoaren gorabeheren historikoa Euskadin
 - 011 telefonoa
- Larrialdiei eta meteorologiari dagokienez, herritarrekin elkarreragiteko mekanismoak indartzen jarraitu da, segurtasun gorabehereri buruzko informazioa biltzeko eta helarazteko. Ildo horretan, nabarmentzekoa da SOS Deiak-en eta Euskalmeten 6 kanaletan egindako jarduera:
 - SOS Deiak Twitter kanala: 1.767 argitalpen eta 40.008 jarraitzaile
 - SOS Deiak-en webgunea: 101.036 bisita.
 - SOS Deiak-en App-aren deskargak: 72.430.
 - Euskalmet Twitter kanala: 6.228 argitalpen eta 123.669 jarraitzaile
 - Euskalmeten webgunea: 9.219.950 bisita
 - Euskalmeten App-aren deskargak: 15.782
 - Gainera, abisu akustikoen sistemak eta nahierara abisatzeko sistema aktibo mantendu dira.
 - Alderantzizko 112an oinarritutako abisuen prozedura ezarri ondoren, Segurtasun Sailak herritarrei arriskuen berri ematen jarraitu du sistema horren bidez. Zehazki, 26 abisu bidali dira, gehienak ariketekin eta simulakroekin lotutakoak. Harpidetutako pertsonen kopuruak gora egiten jarraitu du, 72.430 guztira.
 - Webean hitzordua eskatzeko eta salaketa jartzeko sistema bat instalatzean aurrera egin da. 2022an, programatutako jarduketa gehienak egin dira. Hitzordua Gasteizko Ertzain-etxean egongo da erabilgarri, 2023ko maiatzerako, pilotu gisa.
 - Delituzko egintza bat gauzatzean egin beharreko izapidetak arindu dira, eta, ahal den neurrian, polizia egoitzetara joan beharra saihestu da. Ildo horretan, Ertzaintzak 468 izapide egin ditu online salaketa elektronikoan.
 - Egoitza elektronikotik izapidetze elektronikoa osoa ahalbidetzeko prozedura administratiboen digitalizazioarekin lotuta, 140 prozedura baino gehiago sinplifikatu dira. Jendearenganako, hauek izan dira Segurtasun Sailaren jarduera nabarmenenak:
 - Salaketa elektronikoaren prozedurak eta adingabeak atzerrira ateratzeko komunikazioa optimizatu dira.

-
- Euskadi.eus eta trafikoa.euskadi.eus webguneen arteko konexioa egin da, herritarrek errazago kontsultatu ahal izan dezaten beren espedientea.

L11 PERTSONA KONPROMETITUAK, KUALIFIKATUAK, PARTAIDETZA ZENTZUA DUTENAK ETA GOGOBETEAK EDUKITZEA

Helburua ahalik eta talde profesional onenak izatea da segurtasunaren aurkako mehatxuei aurre egiteko, bai trebakuntzaren aldetik, bai motibazioaren aldetik.

Lidergo eredua, etengabeko prestakuntza, barne komunikazioa eta aintzatespena faktore erabakigarriak dira. Era berean, emakumearen presentzia eta euskararen erabilera sustatu behar dira.

Segurtasun Sailaren helburua talde konprometitua, kualifikatua eta kide sentikorra izatea da, jarduerak ahalik eta modu eraginkor eta efizienteenean egin ahal izateko. Horretarako, hainbat prestakuntza ekintza garatu dira (bai polizia agenteentzat, bai herritarrentzat). Bestetik, profil profesionalak eguneratu dira gizartearen eskaera eta eskakizun berrietara egoki daitezen. Ildo horretan, arau xedapen bat garatu, onartu eta eman da, espezializazioa, polizia-eskala eta Ertzaintzako funtzioak onartzearekin zerikusia duena.

Hauk izan dira jarduera nagusiak:

- Larrialdiei eta meteorologiari buruzko hainbat prestakuntza ekintza eman dira herritarrentzat eta Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistemako zerbitzuentzat. Hona hemen emandako ikastaroen xehetasun batzuk:
 - Herritarrei zuzendutako 9 prestakuntza ekintza eman dira, hainbat erakunderekin lankidetzan, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren zerbitzuen hedapena sustatzeko.
 - Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemako kolektibo profesionali eta bolondresei zuzendutako 1.938 prestakuntza ekintza eman dira. Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agenteei eta udaltzainei emandako prestakuntza barne.
 - 915 herritarrek parte hartu dute emandako prestakuntzan, batez ere prestakuntza zentroetakoak, ikastetxeetakoak eta, oro har, elkarteetakoak.
- Suhiltzaileen profil berria zehaztu eta diseinatu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Bereziko Eskalan, Suteen Prebentzio eta Itzaltze Zerbitzuan sartzeko. Horretarako, gaitasun profesionalak definitu dira, hautaketa probak egokitu dira eta ikasketa plan bat egin da gizarteak eskatzen dituen eskakizun eta errealitate berriei erantzuteko.
- Lanbide eta Unibertsitate Heziketako Hezkuntza Sistemaren segurtasun arloko prestakuntza arautuaren aitortza bultzatu da. Hori lortzeko, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren, Hezkuntza Sistemaren, Botere Judizialaren eta beste erakunde batzuen artean segurtasun arloko lankidetzaren eta ezagutzaren kudeaketarako espazioak sustatu dira. Helburu horiek lortzeko, segurtasunaren arloko 8 prestakuntza ekintza garatu dira hezkuntza sistemako hainbat erakunderekin koordinatuta. Prestakuntza ekintzek, oinarrizko ikastaroak eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroen edizioak barne hartzen dituzte.
- Langileek atzerriko hizkuntzetan duten prestakuntza eta ezagutza sustatu da, batez ere ingelesez eta frantsesez. Horretarako, 2022an 95 pertsona trebatu dira.
- Ertzaintzaren espezializazioa, eskala poliziala eta funtzioak aitortzearekin lotutako arau-xedapen bat garatu eta onartu da. Bestalde, karrera profesionaleko dekretuak onartuta eta indarrean daude.

- Abenduaren 20ko, Ertzaintzako fakultatiboen eta teknikarien eskala arautzen duen 156/2022 Dekretua onartu da. Dekretu honek Ertzaintzako fakultatiboen eta teknikarien eskalako funtzionario izendatzen diren pertsonen eginkizunak, sarbidea, hautaketa sistemak eta araubidea garatzen ditu.
- Ertzaintzaren Zuzendaritzak baditu diseinatutako eta ezarritako aintzatespen formulak. 2022an, 662 formula sustatu dira gorputzeko kideak formalki aitortzeko. Zehazki honako aintzatespen hauek eman dira:
 - 5 domina bereizgarri zuriarekin
 - Domina 1 bereizgarri gorriarekin
 - 155 diploma bereizgarri zuriarekin
 - 466 diploma bereizgarri gorriarekin
 - 35 zorion-emate
- Ekainaren 27ko 7/2019 Legea garatu da, Laneko Osasunaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldaketari buruzkoa. Lege hau adinaren arabera egokitutako zerbitzu aktiboari, urritasun psikofisikoagatiko bigarren jarduerari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa da. Hori dela eta, bi arau-xedapen garatu dira:
 - 2022ko uztailaren 8ko EHAAAn argitaratutako epaimahai medikoaren osaera.
 - Azaroaren 22ko 142/2022 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia hautatzeko eta prestatzeko erregelamendua onartzen duen koadro mediko baztertzaila egokitzeari buruzkoa. Koadro Medikoaren eranskinean jasotako baztertze arrazoien aldaketek azken urteetako gaixotasunen eta esperientzien diagnostikoari eta tratamenduari buruzko ebidentzia zientifiko berriak jaso dituzte.
- 2022. urtean zehar, Ertzaintzan eta Udaltzaingoetan emakumearen presentzia sustatzeko planak bultzatu dira, haren azpiordezkaritza zuzentzeko. Guztira, 167 emakume hautatu dira, hau da, hautagai guztien %33,87. Zehazki:
 - 39 Udaltzaingoetarako hautagaiak izan dira, hau da, hautatutako udaltzainen %56,52.
 - 128 Ertzaintzarako hautagaiak izan dira, hau da, hautatutako ertzainen %30,18.
- Ertzaintzan eta Udaltzaingoetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana gradualki ezarri da. 2022an, jarduneko karrerako funtzionario diren ertzainen %61,48k bi hizkuntza eskakizunetako bat egiaztatu du. Azken 3 urteetako bilakaera honako hau izan da:
 - 2020 - % 55,49
 - 2021 - % 58,10
 - 2022 - % 61,48

Udaltzaingoetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana sustatzeari dagokionez, Udaltzaingoko 34 zerbitzuek hartu dute Normalizazio Plana.

L12 BEHARREZKO LANTALDEA ETA EGITURA FINKATZEA

Helburua une oro behar adina profesional izatea da, segurtasunaren aurkako mehatxuei erantzuteko.

Karrera profesionalaren kudeaketa eta langile ez-polizialen egonkortasuna faktore erabakigarriak dira.

2022an, Segurtasun Sailak Ertzaintzaren belaunaldi erreleboa formalizatzen jarraitu du, azken deialdi bateratuan iragarritako 127 postu berrirekin. Euskal Poliziaren laugarren deialdi bateratua da, Ertzaintzako agenteek eta Udaltzaingoen osatua. Halaber, Ertzaintzaren plantillan emakumeen ordezkariak handitu da. Neurri handi batean, 2022. urtean "Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente kategorian emakumeak sartzeko lehen Sustapen Plana 2026" onartu zenean ezarritako neurri zuzentzaileei esker lortu da hori.

Hauek izan dira jarduera nagusiak:

- 2022ko abenduaren 14an, emakumeak Ertzaintzako oinarrizko eskalan sartzeko lehenengo plana onartu da. Planak Ertzaintzan emakumeen presentzia sustatu eta areagotzeari helden dio, hainbat neurri hartuz. Planean argitaratutako datuen arabera, emakumeak polizia langile aktiboen %16,5 dira (1.200), eta gizonak %83,5 (6.083). Desberdintasun horri aurre egiteko, planak 10 helburu estrategiko eta 45 jarduera jasotzen ditu. Jarduera horien artean, nabarmentzekoa da hautaketa-prozesu bakoitzean emakumeek bete beharreko plazen ehuneko progresiboa bat erreserbatu dela. Helburua, 2026. urtean emakumeen %40ko ordezkariak lortzea da, legeak baimentzen duen handiena, alegia. Zehazki, ehuneko erreserba hauek ezarri dira planaren indarraldirako:
 - 2022. urtea: %33
 - 2023. urtea: %35
 - 2024. urtea: %37
 - 2025. urtea: %39
 - 2026. urtea: %40
- Ertzaintzako teknikariek eta espezialistek polizia laguntzako zeregin tekniko espezializatuak egiten dituzte. Beren funtzioak, daukaten eta eskalan sartzeko eskatu zaien titulazioaren berezko eta berariazko ezagutzekin lotuta daude. Beraz, ez dute agente baten ezagutza eta gaitasun orokorren beharrik. Ertzaintzako fakultatiboen eta teknikarien eskala arautzen duen abenduaren 20ko 156/2022 Dekretua onartuta, eginkizunak, sartzeko eta hautatzeko sistemak eta langile tekniko eta espezialistek aplikatzeko araubidea definitu dira. Horrela, eskakizun eta prozedurak profil horien berezitasunetara egokitu dira.
- Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen artean berezitateko eskala eta kategoria polizialeko Igoera Prozesuaren kopurua berrikusi da. Zehazki, igotzeko 3 prozesu berrikusi dira, ofizialordeen eta agente lehenen kategoriak barne. Ondoren, kategoria horietara igotzeko 3 deialdi berri egin dira.

- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak 2022an Ertzaintzan eta Udaltzaingotetan sartzeko deialdi bateratua egin du. Zehazki, 4. LEP honetan 212 plaza deitu dira. Aurreko deialdi bateratuetan deitutako plazen kopurua honako hau da³:

Ebazpen data	2019ko abenduaren 20a	2020ko abenduaren 17a	2021eko abenduaren 27a	2022ko abenduaren 29a
Ertzainak	700	700	424	127
Udaltzainak	111	51	69	85
Totala	811	751	493	212

- Segurtasun zerbitzu publikoetarako sarbide prozesu bateratuak optimizatzen jarraitu da. Zehazki, 2022an deialdi eta prozesu bateratuetan 326 plaza eskaini dira, 4. LEP bateratuari eta suhiltzaileen 1. deialdi bateratuari dagozkienak.
- Lanpostuen egonkortasuna sustatu da, taldeak sendotzen direla bermatzeko. Zehazki, eta zuzendaritzen arabera banakatuta, bitarteko funtzionarioak ez diren langileen ehunekoa honako hau da:
 - Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza: 2022an bitarteko funtzionario ez direnen ehunekoa %27,58koa da.
 - Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza: Zerbitzu Zuzendaritzak 2022an bitarteko funtzionarioei buruz emandako ehunekoa %43koa da.
 - Trafiko Zuzendaritza: 2022an bitarteko funtzionario ez direnen ehunekoa %44koa da.

³ Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren ebazpenean deitutako plazen kopurua hautaketa-prozedura bakoitzerako.

4. INPAKTU ADIERAZLEAK

Kapitulu honek **inpaktu adierazle** batzuk jasotzen ditu. Horien helburua da Ekintza Plana ebaluatzeko esparru bat ezartzea, benetako eta hautemandako segurtasunari dagokionez.

4.1. INPAKTUA HERRITARREN SEGURTASUN PERTZEPZIOAN ETA HERRITARREN BALORAZIOAN

Euskadiko Segurtasun Publikoaren biktimizazio eta pertzepzioaren azterketa bi urterik behin egiten da. Azken azterketa 2021. urtean egin zen, eta, beraz, datuak 2023. urtean eguneratuko dira.

4.2. INPAKTUA BENETAKO SEGURTASUNEAN⁴

ADIERAZLEA	EMAITZA	EMAITZA	EMAITZA	HELBURUA
	2019	2021	2022	2025
Delitu presentzialen tasa 1.000 biztanleko	48,54	43,13	51,55	< 50
Ziberdelituen tasa 1.000 biztanleko	6,48	7,27	9,11	
Argitze-tasa: delitu presentzialak	35,18	44,71	46,69	> 40%
Argitze-tasa: ziberdelituak	7,76	19,68	24,43	
Hilketen argitze-tasa	96,97	96,67	95	> 98%
Sexu-askatasunaren aurkako delituen argitze-tasa	84,92	85,41	82,18	> 88%
Etxebizitzan indarra erabiliz egindako lapurreten argitze tasa	15,33	13,47	10,40	> 16%
Argitze tasa indarra eta larderia erabiliz egindako lapurretetan	47,98	49,88	47,43	> 50%
Emakumeen aurkako biktimizazioen kopurua	5.518	5.430	6.143	< 5.000
Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen kopurua	4.419	4.317	4.870	< 4.000
Aktibatutako larrialdi planen ehunekoa, aktibatu beharko liratekeen plan guztiekiko	--	100,00	100,00	> 80 %

⁴ Inpaktu-adierazleak aldatu dira, Delinkuentzia-memoriaren metodologiaren arabera. Memoria horretan, egoitza-delituak eta ziberdelituak bereizten ziren.

ADIERAZLEA	EMAITZA 2019	EMAITZA 2021	EMAITZA 2022	HELBURUA 2025
112 telefonoaren bidez herritarren eskura jarritako abisu tresnen eta bitartekoen (App, web, etab.) ezagutza/onarpen maila	--	30,20	25,26	> 60 %
Larrialdietarako alerta goiztiarren aurreikuspen ahalmenaren %, emaitzetara egokituta	--	83,33	73,30	> 80 %
Denbora errealean jasotako datu meteorologikoen %	--	99,10	99,97	> 90 %
Meteorologiari dagokionez herritarren eskura jarritako abisu tresnen eta bitartekoen (App, web, etab.) ezagutza/onarpen maila	--	100,00	100,00	> 60 %
Trafiko istripuen ondorioz hildakoen kopurua	51	42	44	< 35
Trafiko istripuen ondorioz larri zauritutako pertsonen kopurua	449	440	462	< 335
Egindako ikuskapenen kopurua, jokorako eta apustuak egiteko lokalen eta guneen kopuruaren arabera	5.871	3.429	3.310 Δ 15% (6.751)	
Adingabeei buruzko akten ratioa (bai jokatzeko lokaletan egoteagatik, bai jokatzeagatik) egindako ikuskapen kopuruarekiko	0,22	0,02	0,00	0,0 ‰

5. ONDORIOAK

Euskadiko Segurtasun Publikoko Sistemaren Antolamenduari buruzko 15/2012 Legearen bidez, administrazio publikoek, herritarrek beren eskubide eta askatasunez gozatzeko baldintzak sustatzeko xedapen, prozedura eta baliabideen multzoa egituratzen dituzte. Hori dena, ongizateko eta gizarte-kohesioko espazioetan, Euskadi Europa mailako erreferente gisa kokatuz.

2022an, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak eta hura osatzen duten zuzendaritza guztiek, beren konpromisoa eta kohesioa erakutsi dute ESPPOren ekimen, ekintza eta adierazleetan zehar aurkeztutako helburuak betetzeko.

ESPPOren jarraipen adierazleetan oinarrituta, esan daiteke plana %91,47an garatu dela, 2022rako aurreikusitakoarekin alderatuta, eta %37,95ean, 2025ean amaitzen den indarraldi osorako aurreikusitakoarekin alderatuta.

ESPPOren definizioan eta garapenean Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako eta Euskadi Basque Country 2030 Agendan bildutako **Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)** kontuan hartu dira. Ildo horretan, 2020 – 2025 aldi estrategikorako Garapen Jasangarrirako Helburuen %37,55ean garatu da plana, **GJH 11** (Hiriak inklusiboagoak, seguruagoak, erresilienteagoak eta jasangarriagoak izatea) eta **GIH 16** (Gizarte justuak, baketsuak eta inklusiboak sustatzea) zuzenean lagunduz. Gainera, **GJH 5** (Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea), **GJH 9** (Erresilientzia duten azpiegiturak eraikitzea, industrializazio jasangarria sustatzea eta berrikuntza sustatzea) eta **GJH 17** (Garapen Iraunkorrerako Mundu Aliantza suspertzea) garatzen ere lagundu du.

Era berean, plan honek eta haren hedapenak **emakumeen eta gizonen tratu eta aukera berdintasuna osatzen duten politikak garatzen laguntzen dute (GJH 5)**, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Ildo Estrategiko bakoitzeko 2022an egin diren jarduera nagusiei dagokienez, ondorio hauek atera daitezke:

- **Gorroto-delituak.** Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko programen bidez, gorroto delituen aurkako borrokan laguntzeko kontzientziazioa. Era berean, larrialdien kudeaketaren aurreko gizarte-erresilientziaren arloko jarduerak nabarmentzen dira. Baita prebentzioak teknologia berrien erabileran duen garrantzia ere. Segurtasun Sailak 2022ko Gorroto Delituen Txostena egin du.
- **Zibersegurtasuna.**
 - Azpiegitura nabarmenak babestea. Azpiegitura nabarmenak babestea Eusko Jaurlaritzaren jardun-ardatz nagusietako bat da. Ildo horretan, Zibersegurtasuneko Erakunde arteko Mahaia eratu da BCSCrekin elkarlanean, eta segurtasun plan berriak onartu dira.
 - Ziberdelituak. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak bere gaitasunak indartzen jarraitzen du, ziberdelituak bezalako delituzko errealitate berriak prebenitu, ikertu eta konpontzeko. Ildo horretatik, Ertzaintzaren Informazioaren Teknologietako Delituen Atal Nagusiaren (SCDTI) gaitasunak indartu dira, Ziberkriminalitatearen aurkako Ertzaintzaren Ekintza Plana egin da, eta Ziberzaintza agentzia (Zibersegurtasunaren Euskal Agentzia) eratzekeo prozesua jarri da abian.

- **Bide Segurtasuneko Euskal Ituna.** Euskadiko Segurtasun Sailak Euskadiko Segurtasun Publikoan parte hartzen duten eragileekin lan egiten du. Ildo horretan, Bide Segurtasunaren eta mugikortasun jasangarriaren aldeko Euskal Ituna sinatu izana nabarmentzekoa da. Ekimen aitzindaria da, eta Euskadi erreferente gisa jartzen du Europan bide segurtasunari eta trafikoaren kudeaketari dagokienez.
- **Gardentasuna.** Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak bereziki garrantzitsutzat jotzen du gizartearekin harremanak izateko eta elkartzeko sistemak ezartzea, ahalik eta gardentasun eta kontu-emate handiena eskaintzeko. Horretarako, Arartekoarekin, Euskadiko Udalen Elkartarekin, EUDELekin, eta hainbat erakunde edo talderekin bilerak eta harremanak mantendu dira. Bestalde, Kontrol eta Gardentasun Batzordeak bere jarduerarekin jarraitu du, eta 9 bilera egin ditu 2022ko urtealdian. Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak erantzuna eman die Eusko Legebiltzarrak eta Ekinbidek egindako proposamenei.
- **Herritarrekiko komunikazioa.** Herritarrekin zuzenean eta eraginkortasunez komunikatzeko mekanismoak eta kanalak ezartzeko konpromisoa du Segurtasun Sailak. Ildo horretan, aurreratu egin da online aurretiko hitzorduen sistema bat instalatzen. Sistemak, webgunean polizia bulegoetara joateko hitzordua eskatzeko eta dagokion salaketa jartzeko, bai eta salaketa mota batzuen izapidetze telematikoa egiteko aukera emango du. Bestalde, 112 Alderantzizko abisuan oinarritutako abisu-prozedura ezartzean, harpidetza gehiago egin direla ikusi da. Bestetik, Zuzenean komunikazio kanalak Segurtasunarekin lotutako herritarren proposamenak jasotzen jarraitu du. Hain zuzen ere, 2022an Segurtasunarekin lotura duten 35.358 arreta eman dira, hau da, Zuzenean zerbitzuaren bidez emandako arreta guztien % 5,58, eta bosgarren gairik tratatuena.
- **Berdintasuna eta belaunaldi aldaketa.** Belaunaldi erreleboa formalizatzea helburu argia da Segurtasun Sailarentzat, une oro segurtasun mehatxuei erantzuteko behar adina profesional izan daitezten. Gainera, Segurtasun Sailak Ertzaintzako plantillan emakumeen ordezkariak handitzen jarraitu du, 2022an "Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente kategorian sartzeko Emakumeak Sustatzeko Lehen Plana 2026" onartu zenean ezarritako neurri zuzentzaileei esker. Gainera, 2022an bi deialdi bateratu egin dira, hautapen prozesu hauei dagozkienak:
 - Euskal Herriko Polizia (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) eta Udaltzaingoko Zerbitzuetako Oinarrizko Eskalako agente kategorian txanda irekian sartzeko hautapen prozedura.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Suteen Itzaltze eta Aurreikuspen Zerbitzuko Administrazio Bereziko Eskalan, azpieskala operatiboan, suhiltzaile kategorian sartzeko hautaketa-prozedura.

6.- ERANSKINAK

Hona hemen ESPPOren ekintzen zerrenda, adierazleak eta 2022. urteari dagokion datua. Definitutako adierazlearekin denbora-tartean neurtu ezin izan diren ekintzen kasuan, “Ez dagokio” adierazten da.

ADIERAZLEEN EMAITZAK

I. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA			
EKIMENAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK	DATUA
L1. EUSKADIKO SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUAREN ESPARRU ESTRATEGIKOA ETA ESKUMEN ESPARRUA EZARTZEA			
1.1 Euskadiko Segurtasun Publikoko 2025 Plana onartzea, segurtasunean esku hartzen duten guztien –publikoak zein pribatuak izan– zerbitzura egongo den gida bihurtzeko, non koordinazio mekanismoak definituko diren.	1.1.2 2020-2025 ESPPOren segimendua eta ebaluazioa, bertan ezarritako kudeaketa ereduaren arabera.	- Egindako urteko ebaluazio txostenen kopurua.	1
1.2 Segurtasun arloan autogobernua sendotzea eta defendatzea.	1.2.1 Segurtasun Batzordeari bultzada berria.	- Segurtasun Batzordeak egindako bileren kopurua.	0
	1.2.2 Segurtasun Sailburuordetzaren eta Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren arteko interkomunikazio sistema operatibo bat ezartzea.	- Koordinaziorako Batzorde Iraunkorraren bilera kopurua.	0
		- Koordinazio Polizialerako Batzorde Teknikoaren bilera kopurua.	1
1.3 Euskadi/Basque Country 2030 Agendaren GIHa lerrokatzea/garatzeta.	1.3.1 Euskadi/BasqueCountry 2030 Agendaren 11. GIHa garatzea.	- Gaueko segurtasunaren pertzepzioa hirietan.	6,87
	1.3.2 Jasangarritasunerako Udalerrien Sarearen udal plan estrategikoetan laguntzea.	- Parte hartzen den Udalsarea 2030 sareko udal-plan estrategikoen kopurua.	77

L2. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA OSATZEN DUTEN ERAKUNDE GUZTIEN ARTEKO KOORDINAZIO ETA LANKIDETZA MEKANISMOAK SENDOTZEA

2.1 Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko koordinazio eta lankidetzaren mekanismoak indartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia erantzunkidea eta eraginkorra izan dadin.	2.1.1	Euskal Poliziaren Koordinazio Sistema sendotzea (Ertzaintza eta Udaltzaingoa).	- Sinatutako hitzarmen berrien kopurua.	31
	2.1.2	Tokiko, eskualdeko eta/edo lurraldeko segurtasun plan integral espezifikoak egitea, dauden arrisku guztiak kontuan hartuta eta eragindako lurraldearen ezaugarrietara egokituta.	- Eskualdeko/udaletako segurtasun planen bidez estalitako EAEko biztanleriaren %.	5%
	2.1.3	Ertzaintzaren eta Euskadiko Udaltzaingoen artean jarduteko protokolo bateratuen formalizazioa eta ezarpena orokortzea, udalerrri bakoitzaren errealitatera eta baliabideetara egokituta.	- Sinatutako protokoloen kopurua.	12
	2.1.4	Salaketa sistema bateratua Ertzaintzarentzat eta udaltzaintzat.	- Sistemaren oinarrituz izapidetutako salaketen kopurua.	0
	2.1.5	Udaltzainak Polizia Koordinatzeko Zentroetan sartzeko ("Udaltzaingoa" polizia agentzia, 112 AKZren intzidente aplikazioetan).	- Sartutako udaltzainen kopurua.	1
	2.1.6	Jarraibideen, protokoloen, irizpideen, informazioaren eta abarren sistema eta mekanismo komunak eta partekatuak ezartzea, Ertzaintzak eta Udaltzaingo guztiak erantzun homogeneoa eman diezaieten delitu, asistentzia eta kasuistika komunei: EI/GI (EBA Etxekoan eta Emakumeen Babesa proiektua), etxeetako lapurreta...	- Adostutako formularioak eta/edo prozedurak.	3
	2.1.7	Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen baterako deialdiak finkatzea.	- Deialdi kopurua.	1
